

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua nagusiki gazte eta helduei zuzenduta dago, izan ere, alokairuan izango ditugun produktuak hauentzat soilik izango dira eskuragarriak, gutxienez 18 urte izan behar direlako ere. Honen arrazoia oso sinplea da, produktu gehien alokatuko dituztenak tailaje handikoak izango dira. Ondorioz, zuzenki hauentzat egokituta izango da eta gehiago inbertituko genuke horrela oso errentagarria aterako litzateke geroz eta jende gehiagok alokatuko lituzkeelako arropak, lortutako irabazia handiagoa izanda. Esaterako haurren tailak saltzen baditugu, ez du zentzu handirik izango, hurrek ez baitituzte normalean ekitaldiak izaten. Aldiz helduek nahiko jardunaldi izaten dituzte urtean zehar (ezkontzak, hiletak, edozein motatako ebentuek...), eta zuzenean oso gutxitan erabiliko den arropa oso garestia erosi beharrean, alokairuan erostea oso aukera ona izan daiteke.

Gainera, arroparen zaintzarekin kontu handia izango dugu, izan ere eskainik dugunak ahalik kalitate handiena duela bermatuz. Eskainiko dugun zerbitzua luxuzko arropen alokairua izango da. Arropa alokatuko dute denboraldi bate eta itzultzerakoan berehala tindategira bidaliko dira garbitzeko, nahiz eta garbiak itzuli, ahalik eta garbien egoteko eta berriz alokairuan jar ahal izateko bezeroentzat garbiketa sakon bat egingo diegu produktuei, horrela hasiera batean zegoen moduan izango dute ondorengo bezero guztiek.

Bezeroen segmentazioaren arabera, merkatu mota desberdinak daude; merkatu masiboa, nitxo osatutako merkatua, segmentatua, debertsifikatua, merkatu multilateralak eta beste ahin beste. Horietan oinarrituta, gure produktua merkatu hauetara bideratu dugu, ahin zuzen, merkatu masibo batean oinarrituko gara gure proiektua aurrera eramateko.

Gure proiektuaren helburua ekonomikoki arazoak dituzten kontsumitzaileak laguntzea da. Horretarako, merkatu masiboan oinarrituko gara. Gure helburu nagusia bezeroak diru kontuekin laguntzea da, baina beste hainbat helburu ditugu. Gainera, gure produktua baldintza egoki batean eskeiniko dugu, garbiak mantenduko direlako eta inperfekziorik gabe. Horrez gain, tailaje mota guztietako arropa eskuragarri izango dugu eta bezero mota guztientzat egokituta egongo da gure arropa, denek eskuratu ahal izateko. Gure produktuak leku seguru batean gordeko ditugu eta arropa eskuratzeko gure aplikazioa erabili beharko da. Ondoren, gure produktuak guk eramango genituzke bakoitzaren etxera, gure garraioak erabiliz.

Aurretik aipatu bezala, zerbitzu hau gazte eta helduentzat bideratuta egongo da, ekonomikoki luxu hauek erosi ezin dituztenentzat honelako arropa janztea edota ekitaldi garrantzitsuetarako janzteko aukera izateko. Horregatik esku izango dute prezio merkeekin.